

30. atala HISTORIA IDAZTEN

Korrika hasia zen Aritz eta Jone bere atzetik. Aldapan gora eta gora Mañeriku albotik pasa eta Goiurian gora. Ez zituen ezerk nekatzen gazte haiek. Buruan zituzten etorkizunerako amets guzti haiek emandako indarrak azkartzen zituen neba-arreben pausoak eta halako batean pagadi gazte baten itzalpetik Gallandako tontor soilera iritsi ziren berriz, bidaia hau hasi zutenean bezalatu.

- *Bidaia itzela izan da Jone – Hasi zen Aritz arnasestuka – Gauza pila bat ikasi dut!*
- *30 eguneko bidaia Aritz. Iurretako desanexioa lortu zenetik pasa den urte bakoitzeko egun bat.*
- *Eta orain zer? Amaitu da?*
- *Historia ez da sekula amaitzen Aritz! Egunero idazten dugu gure herriaren historia gure ekimen eta proiektu ezberdinekin.*
- *Beraz, hemendik urte batzuetara gure kontuak kontatuko dizkiete beste “Jone” batzuek beste “Aritz” batzuei ezta?*
- *Baietz esango nuke – Bota zuen Jonek barrez – eta elkarri kontatzen dieten historia hori nolakoa izatea nahi dugun halaxe jokatu beharko genuke guk orain.*

ARIKETA:

- Zer altuera markatzen du Gallandakobuzoi bakoitzak?
- Zer amets dituzu etorkizunerako?
 Hartu paper txuri bat eta marraztu zure ametsetako lurreta!

- *Ulertu dut Jone! Guk ez dugu gerrarik nahi! Ezta euskara gazteleraren menpe galtzerik ere.*
- *Ezta gure herria handiagoen azpian galtzerik ere*
- *Edo trenak inguruak erre edo hondatzea! Guri buruz ondo hitz egingo dute Jone!*
- *Ez da beti erraza denen gustuak bete-tzea baina gu gure ametsak gauzatzen saiatuko gara!*
- *Horixe baietz!*

Gallandan haizeak urratutako ikurriña haren azpian, pago gazte inguraturik neba-arreba iurretarek solasean jarraitu zuten, etxera nondik itzuliko ziren pentsatzen, afaritarako zer prestatuko zuten eztabaidatzen, Gallandako bi buzoiek markatzen duten altuera diferentziaz txantxetan, baina batez ere, hurrengo zer bidaiatan murgilduko ziren amesten.

